


Arkitektoen bidaia-marraskia: Arkitektura-Adierazpen Grafikoaren XV. Nazioarteko Kongresua.



Laburpena: Artikuluak Las Palmas Kanaria Handikoan 2014ko martxoaren 22 eta 23an gauzatu den Arkitektura Adierazpen Grafikoaren XV. Kongresuaren berri ematen du, «Arkitektoen bidaia-marraskia» leloa duena, kongresuaren testuinguru teorikoa kokatuz.

Gako-hitzak: Arkitektura Adierazpen Grafikoa, Bidaia-marraskia, Irudizko marraskia, Grand-Tour

Abstract: The article explains the theoretical background of the XVth Architectural Graphic Expression Congress, held 2014 march 22-23th at Las Palmas, Canary Island, with the motto of "Architects' journey drawings".

Key-words: Architectural Graphic Expression, Journey drawing, Imaginary drawing, Grand-Tour.

Ángel Melián

Arkitekto Doktoa. Kanaria Handiko Las Palmaseko Unibertsitateko Arkitektura Eskolako Adierazpen Grafikorako eta Arkitektura-Proiektutako Sailaren zuzendaria.

Alberto Bravo

Arkitekto Doktoa. Kanaria Handiko Las Palmaseko Unibertsitateko Arkitektura Eskolako Adierazpen Grafikorako eta Arkitektura-Proiektutako Sailaren Zerbitzu Buru.

Aldiri, 1, 17, 2014, 30-32, ISSN 1889-7185
Jasotze-data: 21/01/2014. Onartze-data: 21/01/2014.
Erredakzioan itzulia.



Arkitektura Adierazpen Grafikoaren XV. Nazioarteko Kongresuak (gaztelaniaz EGA, *Expresión Gráfica Arquitectónica*), gai monotematiko bezala, arkitektoen bidaia-marraskia izan du hizpide, eta Las Palmas Kanaria Handikoko Unibertsitateak (ULPGC) antolatua izango da, 2014ko martxoaren 22 eta 23an, Las Palmasen bertan. Kongresuaren komite zientifikoa Espainiako estatuko zein Italiako irakaslez osatu da, Ángel Melián García irakasle titularra duela komitearen idazkari. Coruñan ospatu zen kongresu honen lehenbiziko edizioa, bi urterik behin, estatuko arkitektura-eskoletako hainbat ikertzaile zein irakasle biltzen ditu, atzerriko hamaika partaiderekin batera.



«Arkitektoen bidaia-marraskia» gaia bilakatu da hitzaldi, komunikazio zein eztabaiden zentro. Kongresuaren lelo bera hartu du Carlos Montes-ek idatzitako artikularen lehenengo zatiak, «Louis Kahn Amalfi-ko kostaldean (1929)»; artikularen sarreran, Montes irakasleak kongresuan zehar identifikatutako bi marrazki motei buruz hitz egin du, hots, bidaia-marrazki errealarari buruz eta irudizko edo alegiazko bidaia-marrazkiari buruz: «Italiako Lotus aldizkariak erregistro grafiko hauek ikertzeari eskaini zion monografiko oso bat, Le Corbusier, Gunnar Asplund, Alvar Aalto, Louis Kahn, Rob Krier, Alvaro Siza, John Hejduk eta Aldo Rossi-ren bidaia-marrazkien azterketa interesgarriekin. Aztertutako irudiak ez dira zuzenean egindako marrazkiak, baina ez direnak ere bidaia-marrazkitzat har daitezke, nahiz eta --Krierren kasuan esaterako-- bakoitzaren memorian bidaia izan, haren fantasia eta forma-obsesioak adieraziz. Ordudanik aurrera, arkitektoen irudien erakusketak ugaritu dira, katalogo eta liburuekin batera» (Montes, 2005: 19).

Gaiaren inguruan hiru egoera planteatzen dira, kongresuak izan behar dituen lan-sesioekin bat datozenak: bidaia-marrazki erreala, irudizko bidaia-marrazkia eta marrazkia arkitekturaren irakaspenean.

Bidaia-marrazki erreala

Arkitektoen bidaietan egindako marrazkiak izan du atal honek hizpide. Arkitektura-obra bati modu kritikoa aurre egitean hainbat hausnarketa-estrategia erabili behar dira: argazkiak, apunteak, datu-bilketa, oharra, narrazioak... Horiek ondokoa adierazten dute: «Errealitatea zentzumenetan aurkezten da eta, haratago, hamaika arkitektoen kontzientzian» (Moreno, 2002: 13). XIX. mendeko klase ertain-altuko gazteek, hala nola John Soane, John Ruskin edo Charles Rennie Mackintosh-ek, ez zuten beren prestakuntza ulertzen Europatik egin beharreko «Grand Tour» bidaiatik ez bazen.

XX. mendeko arkitektura ondorio izan zuten bidaiak aipatu bidaia horiek izan zituzten aurrekari, Pizkundean edukirik beraien jatorria, intelektual humanistek kultura klasikoaren gorabeherak hitzetik hortzera ezagutzeko egindakotak bezala. Le Corbusierren ezizena oraindik erabiltzen ez zuen Charles-Edouard Jeanneret-ek, 1911n, ekialderako bidaia aitortu zuen. Eric Gunnar Asplund Afrikako iparraldetik eta Italiatik bidaiatu zuen 1913an. Alvar Aaltok ere, 1921ean, graduatu bezain laster ekin zion European zehar bidaiatzeari, bere estudio profesionala ireki aurretik. Walter Gropiusek, 1928an Dessau-eko Bahauseko zuzendari-karguari uko egin ostean, bidaiari ekin zion. Adolf Loos Estatu Batuetako arkitektura berria ezagutzera joan zen; Frank Lloyd Wrightek 1905ean bidaiatu zuen Japoniara; Louis Kahn 1928 eta 1929 bitartean ibiliko zen European zehar bidaietan, Filadelfiako estudio



profesionala ireki baino lehen, eta ostera ere bidaiatuko zuen Italia eta Egipto bitartean 1950etik 1951ra; Alvaro Siza bere herrialdean zehar marrazten ibiliko zen, Espainian, Italian, Frantzia, Brasilen, Kolonbian, Perun, Egipton, Indian, Le Corbusierren edo Stirlingen obrak bisitatzen, arkitektoekin batera –lagunak zein kideak– Fernando Távora Oportoko eskolan hasitako tradizioari jarraiki, 1960an Estatu Batuetatik zein Japoniatik bidaiatuko zuena.

Irudizko bidaiia-marraskia

Irudimenetik datorren marraskian, edota adimenez egindako bidaienean, aipatu bidaiia guztiak sartuko lirateke, oroitzapenetik datozen marrazkietatik hasita, asmatutako bidaien marrazkietara, literaturaren munduan bakarrik existitu daitezkeenak. Modu horretan, fisikoki lekutik mugitu gabe, bidaiia zilegi da, irudimenean bakarrik dagoen bidaiia burutuz.

1911ko martxo eta abendu bitartean, Charles-Édouard Jeanneretek bere «Grand Tour» pertsonala burutu zuen. Bidaiia horren egunkaria, gerora, «Bidaia Ekialdera» izenez izango zen ezagutua. Berlinetik hasita, Danubioren ibilguari jarraitu zion, Bohemia, Serbia, Errumania, Bulgaria eta Turkia bisitatu, eta hasierako puntura bueltatuz Grezia eta Italia zeharkatu ondoren. Le Corbusierrek bi mundu paralelo eraikitzen ditu, benetazko bidaiarena eta irudikatutako bidaiarena. Aldiz, 1928ko maiatzetik eta 1929ko abendura bitartean, Louis Kahn bidaiia gauzatu zen Europan zehar; 1950 eta 1951 bitartean, Yaleleko irakaslea eta Erromako Akademiako bekaduna zelarrik, Italia eta Egipton zehar bidaiatu zuen. Bere bidaiaren egindako marrazkien zati nabarmena, bai benetazkoak bai irudikatutakoak, errealitatearen errepresentazio hutsalaz haratago doaz, alegiazko munduak sortuz. Haren esanetan: «Zehatz eta mehatz imitatzeak ez du baliorik. Gure xedea hori balitz, argazkilaritza litzateke erabilgarriena. Gure zioa imitatzea ez den heinean, gure marrazkiak berehalakotasun eta kreatibitatez egon beharko lirateke jantziak (...) Ikusteko gaitasuna inguruan duguna ikustean egiten dugun etengabeko hausnarketatik dator, eta guretzat duen garrantzia. Zenbat eta gehiago begiratu, gehiago ikusiko dugu» (Montes, 2005: 28)

Utzon-en marrazkiak, burua parez pare irekita eta tintaz betea duen pertsonaia batek luma bertan bustitzean sortutako alegiazko mundua, memoriaren bitartez sortuak dira. Utzonek errealitate fantastikoa sortzen du joan den mendeko 40ko eta 50eko hamarkadetan zehar egindako bidaiaren horien bitartez. Baliteke, Utzonentzat, errealitatea mundu paraleloz osatua egotea, eta arkitektoaren betebeharra batetik bestera igarotzea izatea (Muro, 1996).

Asplund, Aalto zein Utzonen bidaietan badago nolabaiteko aldea, iparraldetik baitatuz bidaiariak. Ezbairik gabe, beraien arkitektura egiteko eran, arkitektura-formakuntza hasiera horretako bidaiaren eskarmentua agerian dago. Irudikatutako bidaien marrazkiek bidaietako marrazkien translazioa da, beraien eraikinen forma eta espazioetara: Asplunden zeru izartsuak Italia eta Tunisian (1914) egindako urte erdiko bidaiaren topatu zituen herririketako zeru izartsudun dantzaldietan daude; Aaltoren eguzkiak, basoak eta aurora borealak barne-bidaiaren idealizatuaren irudimenean daude; itsaso gaineko hodeiak, plataformen gaineko estalkiak, lehenbiziko bidaiaren oroitzapenak, Utzonek irudikatuak eta marraztuak, haren obraren oinarri zein garapenean

topa daitezke. Hiru arkitektook, natura berri bat sortzeko, bidaiatzearen esperientzia marraztea konpartitzen dute.

1977ko erretratu batek ematen du Alvaro Siza Malagueira-an bidaiaren hasten deneko testigantza. Lur eta zerutik eginiko bidaiaren horrek, Sizaren ekimen pertzeptibotik (errealitatea somatu) ekimen sortzaileraren (errealitatea eraldatu) dagoen distantziaren jabetzeko aukera ematen digu, tarte bat non, joera artistikoa duen estrategiaz kokatuz, errealitatea eta proiektua orri zati batean topa daitezkeen, errealitatea natura berri bat eta proiektuaren elementu bat bidaiaren marrazki batean eraldatzen direla: toki berean, momentu berean, ez du marrazten dagoena ikusteko, egon daitekeena somatzeko baizik.

Bidaiaren marrazkiak arkitekturaren irakaskuntzan

Atal hau hainbat arkitektura-irakasleek antolatutako eskola-txangoetan ikasleek egindako marrazkien harira dator, formakuntzaren momentu batean zein bestean. Neurri handi batean, ikasketa-bidaiaren hauek «Grand Tour» horren tradizioaren oinordeko dira, haren adierazpen zuzenenean: XX. mendearen lehenengo erdialdean arkitektura modernoko maisu handiek egindako bidaiak. Hortaz, atal hau kongresuaren lehenengo atalaren luzapen logiko bezala planteatu da, hots, bidaiaren marrazki errealak, non hainbat irakasleek ikasleekin bidaiatzean izandako eskarmentua kontatuko diguten, arkitektura marraztuz natura ezagutzeko bidaiak hain zuzen ere.

///

Bibliografia

- Montes Serrano, C. (2005): "Louis Kahn en la Costa de Amalfi (1929)", RA. *Revista de Arquitectura*, 7, 19-30.
- Moreno Mansilla, L. (2002): Apuntes de viaje al interior del tiempo, Colección Arquíthesis 10. zk., Fundación Caja de Arquitectos, Bartzelona.
- Muro, C. (1996): "Mundos paralelos, dos notas sobre Jón Utzon", in L.M. Mansilla, L. Rojas eta E. Tuñón (ed.), 33. zk., Circo, Madril.
- Spyros Papapetros (2011): "Le Corbusier y Freud en la Acrópolis: notas sobre un itinerario paralelo", *Los viajes de los arquitectos*, Universidad de Navarra, T6 ediciones, Nafarroa, 136-171.